

LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETAREN ASTANAKO ADIERAZPEN ALTERNATIBOA



OSASUNA PERTSONA GUZTIENTZAT

HITZAURREA

OSASUNAREN EREDU SOZIAL, BARNERATZAILE, EZ NORMATIBO ETA GENEROAREN IKUSPEGI INTEGRALEAN OINARRITUTAKO LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETAREN EREDU BATEN ALDE

Gizakiak garenez, gure osasuna eta gure zaintzapean direnena eguneroko kezka da **medicusmundi** Bizkaiarentzat. Gure adina, generoa, egoera sozioekonomikoa, jatorri etnikoa, sexualitatea, genero-identitatea edo -adierazpena edozein dela ere, gure iritziz osasuna dugu ondasunik oinarritzko eta preziatuena.

Osasunerako eskubidea eskubide inklusiboa da, ez du bakarrik barne hartzen uneko osasun-arreta egoia, faktore sozioekonomiko sorta zabal bat ere barnebiltzen du, hain zuzen pertsonen maila guztietan bizitza duin eta osasungarria eraman ahal izatea erabakitzen dituzten baldintzak sustatzen dituztenak.

Osasuna gaixo ez egotea baino zerbait gehiago da, bizitza osasuntsuan funtsezko eginkizuna betetzen dute osasunaren oinarritzko faktore determinatzaileek, esaterako elikadura eta nutrizioak, etxebizitzak, ur edangarrirako eta osasun-baldintza egokietarako aukera, lan-baldintza seguru eta osasuntsuak, ingurumen osasungarria, eta osasunarekin, genero-berdintasunarekin eta sexu- zein genero-aniztasuna aitortzearekin lotutako gaiei buruzko heziketa eta informazioa.

1978an, ALMA ATako adierazpenarekin –osasu alorrean munduan orain arte sekula izan den adierazpenik handiena–, munduko buruzagiek “2000. urtean guztientzako osasuna” lortzeko konpromiso historikoa onartu zuten, estrategia gisa Lehen Mailako Osasun Arreta (LMOS) erabilia.

Berrogei urte geroago, 2018an, Astanan bildu ziren estatu eta gobernuetako buruzagiek berretsi egin zuten Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan eta Alma-Atako 1978ko Adierazpenean adierazitakoa. Munduko pertsona guztien osasuna babestu eta sustatze aldera, munduko gobernu eta nazioarteko agentzia guztien zein osasun-langile guztien aldetik premiazko ekintza baten beharra azpimarratu zen Astanan.

medicusmundi Alma Atan egon zen eta Astanan egon izan da. Hala ere, etsigarriak iruditu zaizkio han lortutako emaitzak, LMOArekin konpromiso handiagoa izango zela espero zuen eta. **medicusmundik** ezbairik gabe uste du LMOA dela gakoa osasunerako eskubidea lortzeko, eta estatuei eskatzen die inbertitu dezatela osasun-sistema publiko integral eta kalitatezkoak indartzen eta arduraz hel diezaiotela osasunaren determinatzaile sozialei. Horrez gain, berretsi egiten du bere konpromisoa, Osasunerako Eskubidea egia bihurtzarren nazioarteko osasun-lankidetzaz era konprometitu eta autokritikoan lanean jarraitzeko.

Zalantzarik gabe, toki-mailan osasunerako eskubidea gauzatzea, nazioarteko eremu globalago batek baldintzaturik dago zuzen-zuzenean, zeinetan sustatzen baitira estatuetako gizarte-politiketan txertatzen diren planteamenduek gidatutako kontzeptu eta politikak. Ezinezkoa da, beraz, eremu jakin bateko Osasunerako Eskubidearen egikaritzeaz hitz egitea tokiko politikak zehazten dituzten nazioarte mailako osasun planteamenduak ezagutu eta aztertu gabe.

ASTANAKO ADIERAZPENAREN EDUKIAREN AZTERKETAK, ERAKUSTEN DIGU BORONDATE POLITIKO FALTA NABARMENAREN AURREAN GAUDELA OSASUNERAKO EREDU SOZIAL, BARNERATZAILE, EZ NORMATIBO ETA GENERO-IKUSPEGI INTEGRALTIK LANDUTAKOAN OINARRITUTAKO LMOA EREDU BATEN ALDE EGITEKO:

- Azken hamarkadetan osasun alorrean izan den eztabaida larrienetako batzuetan posizionatu da. Alma-Atakoa aipatu eta erreferentzia egin arren, haren zenbait printzipio nagusietatik urrundurik zen kontzeptualizazioa erabili du.
- Helburu goren gisa hartzen du "osasun estaldura unibertsala", ezikusia eginez Ameriketako eskualdeetan irmoki defendatzen den planteamendua, hau da, osasunerako aukera unibertsala lortzeak duen garrantziari buruz, "estaldura" kontzeptuaz harago baitoa (are haren planteamenduei aurkaratzen da). Testuinguru horretan, Adierazpenaren izenburuan eta gorputzean azaltzen den "sanitario" hitza muga izatera dator, ematen baitu bere helburu behinena munduan oinarritzko higiene-instalazioak izateko aukera lortzea dela.



- Ez dio aipamenik egiten estatuek izan eta indartu behar luketen eginkizun arautzaileari, ezta ere osasunaren determinatzaile komertzialei. Era berean, interes-gatazka “kudeatu” beharreko zerbairen modura hartzen du. Ez du osasun-politika publikoak taxutzeko eta inplementatzeko espazioetatik prebenitu edo baztertu beharrekotzat hartzen.
- Adierazpen horretatik kanpo geratu ziren LMOArako giltzarri diren elementu batzuk: ez da ezer esaten pobrezia sortzen duen eta desberdintasunak areagotzen dituen munduko sistema ekonomikoari buruz, ez du ezer aipatzen genero-ikuspegia zeharkatzeko beharraz, ez du txintik ere esaten pertsonak osatzeko kultura arteko ikuspegiarekin, begirunezkoa eta aintzatespenezkoa izango den antzinako jakinduriei heltzea lortzeari buruz.
- Sexu- eta genero-aniztasuna guztiz ikusezina da.

ARRAZOI HORIENGATIK, BESTEAK BESTE, **MEDICUSMUNDI** BIZKAIK BEHARREZKOA
IKUSTEN DU ASTANAKO ADIERAZPEN ALTERNATIBOA PRESTATZEA, LMOAREN EREDU FEMINISTA
ETA EZ NORMATIBOAN OINARRITURIK DETERMINATZAILE SOZIALEN IKUSPEGIA
KONTUAN HARTZEN DUENA

HAU ALDARRIKATZEN DUGU

OSASUNA FUNTSEZKO GIZA ESKUBIDEA IZATEA, ONDASUN GLOBALAREN ETA JUSTIZIA SOZIALAREN KONTUA



- **Osasun-sistema publikoa**, pertsona guztien osasunerako aukera unibertsal nola ekitatiboa bermatuko duena.
- **Praktika politikoak eta ekonomikoak abiaraztea, giza eskubideak lehenetsi** eta pobrezia, desberdintasunen, bereizkerien, estigmatizazioaren eta ingurumena hondatzearen aurka borrokatuko dutenak.
- **Desberdintasun sozialak desagerraraziko dituzten gobernuak**, herritarrak osasunerako eskubide unibertsala egikaritzea bermatuko duten politika publiko batzuk inplementatuz, euren osasun-sistemek aski baliabide izan ditzaten beharrezko finantza-baliabideak eskainiz, eta osasun-sistema on batek eskaini behar lituzkeen prestazioak murrizten dituzten kudeaketa txarrak, ustelkeriazko praktikak zein zerga-sistema bidegabeak saihestuz.

- **Osasuna ondasun publiko globala izatea**, merkantilizaziotik eta interes ekonomizistetik kanpo eta baliabide naturalen defentsan oinarrituta egongo dena.
- **LMOAn ongi trebaturik eta gaiturik egongo den nahiko osasun-langile**, lan-baldintza bidezko eta seguruak izateaz gain egoki ordaindurik egongo direnak.
- Toki-mailan **erabilgarri** eta herritar guztientzat **eskuragarri** egongo diren **tratamendu** eta botikak.
- **Parte-hartze soziala eta komunitarioa** LMOAren baliabideen plangintza, antolakuntza, kontrol eta horniduran.
- **Ebidentzia zientifikoan oinarritutako Lehen Mailako Osasun Arreta**, osasunari/gaixotasunari buruzko askotariko jakintzak berreskuratuko dituen, mendebaldeko metodo eta teknologietan oinarritutako eredu biomedikoak bazter uzten duelako.
- **LMOA osasun-sistema publikoaren funtsezko euskarri izatea**, mediku-arreta integraleko maila guztietan egiazki txertaturik egongo dena, eta komunitatearen garapen sozial eta ekonomiko nagusirako ardatz izango dena.
- **Osasun publikoaren eredu sozial, feminista eta ez normatiboa**, osasunerako eskubidearen egikaritzea bere dimentsio osoan bermatu dezakeen eredu bakarra den aldetik.

GURE KONPROMISOA BERRESTEN DUGU

GENEROARI BURUZKO ETA GENERO-BERDINTASUNA BENETAN LORTZEARI BURUZKO PLANTEAMENDU SAKON ETA ZEHARKAKOA DUTEN POLITIKA PUBLIKOEKIN, EMAKUMEEN OSASUNERAKO ESKUBIDE UNIBERTSALA GAUZATZEA BERMATUKO DUTENAK

Politika publiko horiek:

- **Sistema patriarkala era esplizituan borrokatuko dute**, adi erreparatuz emakumeek familian, soldatapeko lanetan, politikan, sexualitatean, kulturaren, indarkeria matxistan, osasunean eta beste hainbat alorretan dituzten desabantailen sare hertsia.
- **Generoari helduko diote emakumeen osasuna baldintzatzen duten desberdintasun-ardatz gisa, eta, horrez gain, nazioarteko konpromiso hori osasun-politika zehatzetan eta genero-arekiko sentiberak diren gauzatuko dute, abiapuntutzat emakumeen eta gizonen artean botere alorrean den desoreka hartuta:** kontuan izango dute osasun mailarik onenak lortzeari begira emakumeei esleitutako rola gizonetzko emandakoak baino gutxiago baloratzen direla.



Izan ere, gizezkoek errazago eskuratzen dituzte baliabideak eta euren kontrolpean dira, emakumeen erabakietan eragiten dute, eta emakumeek osasunerako behar bezalako babes izatea eragotzen dute. Sexismoak desberdintasunak eragiten ditu emakumezkoen eta gizezkoen artean, zehazki arrisku-faktoreen eraginpean direnean, sintometan, gaixotasunen larritasun nola maiztasunean, gaixotasunaren ondorio sozial eta kulturaletan, eta, halaber, informazioarako, osasun arretarako eta tratamenduetarako aukeran desberdintasunak nola sortzen diren aztertzean.

- **Kontuan hartuko dute emakumeen askotarikotasuna** euren errealitate sozial, ekonomiko, kultural, erlijioso eta sexualak aztertzean, emakumeak homogeneousatzen zuzendutako osasun-politika heteronormatiboak, etnozentrismoak nola mendebaldarkeriazkoak saihestuz.
- **Amaiera emango diote emakumeen osasuna sexu- eta ugalketa-dimentsiora murrizteak sortzen duen diskriminazioari**, horren ondorioa baita ugalketarekin zerikusirik ez duten osasun alderdiak baztertea.
- **Osasun mentalari ikuspegi feministatik helduko diote**, amaiera emanez emakumeen emozio eta sentimenduez egiten den patologizazioari, medikalizazioa erabilita emakumeen gorputzak kontrolatzeko estrategia nagusi gisa, eta maila pertsonalean nola kolektiboan eraginkorrak diren eta ahalduz duten psikoterapiak baztertzeko direlarik.
- Osasunari genero ikuspegiarekin heltzen dion **ikerketak sustatuko dute**.
- **Prebentzio-programak burutuko dituzte** komunitateentzat, eta genero ikuspegia duten prestakuntza-programak osasuneko eragile eta profesionalentzat.

GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUAN OINARRITUTAKO OSASUN-ARRETA LANDUKO DUTE, AURREIRITZIEK BULTZATUTAKO BEREIZKERIARIK GABEA, SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNAREN IKUSPEGI INKLUSIBOA TXERTATUKO DUENA ETA SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA DESBERDINTASUNAREN EGITURAZKO ARDAZTZAT HARTUKO DUENA, GORPUTZEZ, SEXUALITATEEZ ETA GENEROEZ EGITEN DIREN ERAIKUNTZA SOZIALAK DESERAIKITZEKO, PERTSONEN ETA HERRIEN OSASUN EGOERAN DETERMINATZAILE GARRANTZITSUA DIRELAKO

Illo horretan, beharrezkoa da:

- **Aitortzea sexu eta generoaren gaineko sistema heteronormatibo nola bitarrak desberdintasun ugari sortzen duela** eta diskriminazioa eta indarkeria eragiten dutela normatiboak ez diren sexualitate eta generoko pertsonengan, horren ondorioz **aukera gutxiago dutelarik** etxebizitza, lan duina eta ingurumen fisiko eta sozial osasungarria bezalako baliabideak izateko orduan. Faktore horiek, halatan, euren osasun eta ongizate fisiko nola mentalean eragiten diete.
- **Aztertzea** sexualitate eta genero ez normatiboak dituzten pertsonengan egiten den **estigmatizazioak egiturazko jatorria duela**, eta estatuko erakundeak (osasuna, justizia, polizia,...) direla LGBTBI+fobia sustatzen dutenak, hori onartuz eta gizarte osora zabalduz.

- **Sexu-genero sistemaren ikuspegi irekia eta inklusiboa duten politika publikoak abian jartzea,** gizabanakoak garen aldetik izan ditzakegun askotariko sexu- eta genero-identitateak biziz izan gaitzkeen pertsona anitzengan arreta jarriko duena.
- **Ulertzea sexualitate eta genero ez normatiboen patologizazioa izan dela, eta izanez jarraitzen duela, indarkeria ohikoena eta normalizatuena,** zeinaren bidez milaka pertsona buruko gaixotasuna balute bezala diagnostikatu eta tratatu izan diren, euren identitatea estigmatizatuz eta gutxietsiz giza duintasuna eta aitortza soziala ukatu zaielarik. Patologizazioak buruko nahasmen-duan bihurtzen ditu pertsonen bizitza-esperientziak, eta oinarritzko giza eskubideen urraketa larria da.
- **Sexu- eta genero-aniztasuna paradigma psiko-sozial batetik aldarrikatzea, testuinguru kulturalak eta gorputzei, sexualitateari eta generoei buruzko mundu-ikuskerak askotarikoak kontuan izango dituen osasun-ereduen alde eginez.** Nahiak, identitateak eta generoak gauzatu eta bizitzerakoan pertsonak egiten duten hautaketari eta harreman sozial eta komunitarioei balioa ematen dien eredu bat, **sexu- eta genero-orientazioari buruzko mendebaldar diskurtso biomedikoa** (horren arabera, pertsonak mekanismo biologiko batzuei erantzuten diete, eta beraz, sexualitatea edo generoa berezko gauza bat dira, sekula aldatzen ez dena) **auzitan jarriko duena.**
- **Osasun-asistentziaren eredu ez patologizatzaile bat sustatzea,** behar zehatzak dituzten pertsonen laguntza ematen oinarritua dena, pertsona askeak diren bezainbatean eurek erabakitzen dutena aniztasuna nola adierazi eta bizi nahi duten, libre erabakiz euren gorputzen, nahien eta generoen gainean. Sexualitate eta genero ez normatiboak dituzten pertsonentzako arreta-eredu bat, euren duintasuna eta giza eskubideak urratuko ez dituztenak.

- **Generoaren berresleipenerako doako osasun-terapiak hala nahi duten trans pertsonentzat eta, aldi berean, osasun eremukoak ez diren terapia alternatiboak dohainik.** Terapia horiek norberaren gorputzarekin autoestimua indartzera zuzenduko dira, trans pertsonengan diskurtso kritikoak sortze aldera euren gorputzengan eta normatiboki legozkiekeen generoengan jasaten dituzten presio sozialei aurre egiteko.
- **Osasun alorreko eragile eta profesionalak sentsibilizatu eta trebatzea** sexualitate eta genero ez normatiboak dituzten pertsonen beharren gainean, estereotipo eta aurreiritzietatik libre den ikuspegi bat eskainita.



Bilbon, 2021eko abenduak.

PROIEKTUAREN BABESLEAK:

